

antzerkia

Dario Foren 'Tengamos el sexo en paz', asteburuan, Donostian

Dario Fok eta Franca Ramek idatzitako *Tengamos el sexo en paz* antzezlan taularatu du Producciones del Mar taldeak asteburu honetan, Donostian. Komedia horrek sexuaren hasi-masiak ditu hizpide, eta zuzeneko musika eskaintzen du. Hasiera batean, lana 18 urtetik beheitikoendako egokia ez zela adierazi zuten agintariek.




EGUNKARIA

Gaur, bihar eta etzi, 20:30ean, Donostiako Lugaritz kultur etxean.

argitalpena

Ibaizabalen animaliak eta itsas landareak daude berriz

Deustu aldean egin eta banatzen duten *Prest!* aldizkari urtarrileko zenbakian, Ibaizabal itsasadarraren suspertzeari eman diote hileroko monografikoa. Izan ere, industriaren desagertzeak eta Ur Partzuergoak egindako saneamendu lanek «sekulako hondamendi hura» baretu egin dute. Animaliak eta landareak Ibaizabalgo bazterretara itzuli dira.



Argitaratzailea: **Berbaizu Euskara Elkarte**.

ZARAUTZ. 'En la orilla del oceano cosmico'. Gaur, 19:30ean, Oleriti Etxean.

bestelakoak

BERMEO. 'Kandelen argipean' ipuin kontaketa. Gaur, 20:00etan, udal liburutegian.

DEBA. 'Zuhatza berriketan' aldizkarian parte hartzeko bilera. Gaur, 19:30ean, euskaltegian.

DONOSTIA. 'Sorginen itzala, beltza eta itzela' ipuin kontaketa. Gaur, 18:00etan, Egia kultur etxean.

Txan magoa. Bihar, 18:00etan, Egia kultur etxean.

LAUDIO. 'Sarri gure artean' testu errezitaldia. Gaur, 22:00etan, gaztetxean. Bihotz Bakartien Klubak emana.

ikastaroak

BAIONA. Euskal Herriko zuzenbidea. Maite Lafourcade irakaslearen eskutik. Otsailaren 4an hasita, asteartero, 26 orduz. Eusko Ikaskuntzak antolatua. Informazioa eta izen ematea, 0559529299 telefonoan.

BILBO. 'Nazioarteko egunerokotasuna hausnartzen' ikastaroa. IPES elkartearen eskutik. Urtarrilaren 29an hasita, 15 orduz. Informazioa, 94-4790430 telefonoan.

Ludoteka ikastaroa. Bizkaiko Urtxintxa eskolaren eskutik. Martxoaren 1a eta 8a bitartean, 16 orduz. Izen ematea otsailaren 1a baino lehen egin behar da. Informazioa, 94-4320445 telefonoan.

DONOSTIA. Gipuzkoako Urtxintxa Eskolako ikastaroak. Heziketa behar bereziak, natur eskolen begiralea, euskal jolasak, eta ludotekak. Izena urtarrila akitu baino lehen eman behar da. Informazioa eta izen ematea, 943-27003 telefonoan.

IRUÑEA. Esperanto ikastaroa. Astelehenero, 19:00etan, Iturramako kultur zentroan. Doakoa. Informazio gehiago, esperantonav@hotmail.com helbide elektronikoa.

erakusketak

BAIONA. 'Ugatza, lumaren kondaira'. Otsailaren 8a bitartean, Mattin megadendan. Organbidexka

hitzaldia

'Critica a la critica literaria'. Gaur, Iruñeko Navarrerria kultur zentroan (19:30ean).

Asier Azpilikueta | DONOSTIA

Victor Moreno literatura kritikariak kritika eginen dio gaur literatura kritikari. Hitzaldia — Iturralde elkarteak antolatua — Iruñeko Navarrerria zentroan emanen du, 19:30ean.

■ **Egun, literatur lanek berriz kritikatu dira, ala iruzkin soilak egiten dira?**

Ez bata eta ez bertzea. Liburuaren inguruan idazten eta hitz egiten da, baina inolako hizkuntza zehaztasunik gabe.

■ **Zein zeregin izan behar luke literatura kritikak?**


Tira, kritikaren hartzaila nor den argitzen ez den arte, kritikak ezin izanen du zeregin jakirik bete. Demagun, adibidez, kritikaren zeregina dela erratea idazle batek bere liburuetan erbiaren truke antxumea ematen digula; hau da, zehaztea idatzi duena literarioa den ala ez. Nori interesatuko zaio halako zereginik?

■ **Eta? Zeregin hori betetzen du?**

Ez. Egun, kritikak argitaletxeen bozeramaile lana bertzerik ez du egiten. Ildo horretan, kritika-

VICTOR MORENO LITERATURA KRITIKARIA

«Kritika argitaletxeen bozeramaile bertzetik ez da»



EGUNKARIA

Col Libre elkarteak eskainita.

BALMASEDA. 'Marrodan, 50 años de poesía'. Otsailaren 2a arte, udal ateneoan.

BILBO. Santiago Ortegaren irudiak. Otsailaren 5a arte, EHU-BBK etxean.

'H.E.D.B.' Luis Candaudapen azken bost urteko margolanak Windsor Kulturgintza galerian izanen dira otsailaren 28a arte.

Angeles Santosen margolanak. BBK erakusketa aretoan (Gran Via, 32) izanen dira martxoaren 2a arte.

'Aloria eta erromatarkuntza Arabako Kantaurialdeko haranetan'. Erakusketa Euskal Museoan izanen da urria bukatu arte.

DONOSTIA. 'Ehiztari handiak dira begiak'. J. M. Zabaleren argazkien erakusketa. Otsailaren 1a

arte, Koldo Mitxelena kulturunean.

Gloria Saezen, Ramon Balerdiren eta Juan Jose Garairen margolanak. Boulevard 1 erakusketa aretoan izanen dira otsailaren 2a arte.

Juan Jose Garairen margolanak. Kutxaren Boulevard 1 erakusketa aretoan, otsailaren 2a arte.

'Bestelako Meninak'. Martxoaren 2ra bitartean, Kursaalako Kutxaren Kubo Aretoan. Woman Together erakundearen eskutik.

DURANGO. Paco Aguilarren lan grafikoa. Beittu galerian egonen da martxoaren 1a arte.

ERMUA. 'Les altres realitats'. Mireia Comasen argazki bilduma. Ifreñu tabernan, urtarrila bukatu arte.

GASTEIZ. Carmen Mateosen margolanak. Okendo galerian

egonen dira urtarrila bukatu arte.

'El decalogo'. Brenan Duarteren argazki erakusketa. Arabako Artxibo Historikoan, otsailaren 16a arte.

HERNANI. Luisilloren egur erakusketa. Andragoto kultur elkartearen, otsailaren 28a arte.

IRUÑEA. 'Montañas con vida'. Goyo Huesoren argazki erakusketa. Maisonnavé hoteleko Iruña fotogalerian, otsailaren 5a arte.

'La bicicleta en el mundo'. Gonzalo Etxeberriaren eta Luis Diegoren argazki erakusketa Zabaldin egonen da ikusgai otsailaren 11 arte.

KANBO. 'Euskararen hatsa'. Mediatekan, otsailaren 8a arte.

LEIOA. Xabier Idoateren azken sei urteko lanen panoramika. EHUko liburutegi nagusiko erakusketa aretoan, otsailaren 5a arte.

SOPUERTA. 'Etxeko gaztagintza eta guringintza'. Erakusketa Enkarterrietako museoan izanen da martxoaren 10 arte.

TOLOSA. 'Sexualitate'. Argazki erakusketa. Gaur zabalduko dute 19:30ean, Aranburu jauregian. Han izanen da martxoaren 1a arte.

VILLABONA. 'Energia gela'. Urtarrilaren 26a arte, Villabonako Udalaren eskutik.

ZUMAIA. Miren Esnal Laskibarren margolanak. Otsailaren 3a arte, Alondegi Zaharrean.

lehiaketak

ARRASATE. Gazteen Kontseiluaren logotipoa aukeratzeko lehiaketa. Arrasaten

ria ez da egilearen eta irakurlearen arteko bitartekaria, merkatuaren eta liburua izeneko produktuaren eroslearen artekoa baizik.

■ **Zein da egungo kritikak duen bertutirik handiena?**

Nire ustez, pentsamenduaren ikuspuntutik, kritikak garaiaren nondik norakoen berri ematen digute. Kritika termometro ezin hobea da gaur egungo teoria literarioaren egoera aztertzeko.

■ **Eta kritikaren akatsak?**

Nik ikusten diodan akats bakarra da kritika egiten dutenen ezjakintasuna. Kritikari gehienek ez baitituzte ezagutzen kontaketa oinarriak.

■ **Kritikariak argitaletxeen presioa nabaritzen du?**

Egunkari handietan, bai. Horietan, kritikariak literaturaren eunukoak dira. Zenbait egunkaritan, literatura gehigarriko zuzendariak zuzenean erraten die kritikari zein liburuz hitz egin behar duten. Baina kritikariak ez dira jaikitzen, etika politikoan ahantzita edukitzeaz gainera, berdin-berdin baitzaie Reverte edo Saramagoz hitz egitea.

bizi, lan egin edota estudiantzen dabilizan gazteek har dezakete parte.

Teknika libre da. Logotipoan, 'Arrasateko Gazteen Kontseilua' leloa agertuko da. Lanak urtarrila bukatu baino lehen eman behar dira Gazteentzako Informazio Zerbitzuan. Nahi duenak 943-770065 telefonora jotzen ahal du informazio gehiago jasotzeko.

■ **BASAURI.** Ganorabako komiki lehiaketa. Gaia libre da, baina

personei guztiak jatorrizkoak eta argitaratugabeak izan behar dute, autoreak berah sortutakoak. Lan bakoitzak A4 neurriko lau orri izanen ditu gehienez. Lanak zuri-beltzetan edota koloretan izaten ahal dira, euskaraz edo gaztelaniaz. Lanak kultur etxean eman behar dira martxoaren 31 baino lehen.